

## 47. FITXA Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko dirulaguntzak

**Nori zuzendua:** Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-administrazioak (udalak, mankomunitateak eta kuadrillak) eta foru-administrazioak.

**Sarbide-esteka:** <https://euskadi.eus/zerbitzuak/0096412>

**Erreferentziatzko araudia:** [EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez laguntza-deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko](#)

**Eremuak:** Prestakuntza

**Zenbatekoa:** 595.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/09/02 (24:00etan)

### Laburpena

Dirulaguntza hauen xedea da laguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko, 2024ko ekitaldian.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Hauek izango dira deialdi honetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

- Euskal administrazio publikoek beren langileentzat onartzen dituzten **prestakuntza-planak edo -programak**, 2024ko ekitaldikoak.

Prestakuntza-planek edo -programek, berariazko prestakuntza-eskaintzaz gain, ekintza hauetako bat edo batzuk ere jaso ahal izango dituzte:

- Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo lantzea.
- Ikaskuntzako sareak ezartzea, aldi baterakoak nahiz iraunkorrak.
- Irakaskuntzako materiala diseinatzea, lantzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.

— Aprobetxamenduaren, transferentziaren edo eraginaren ebaluazioarekin lotutako azterketak, entitateak garatzen duen prestakuntzari buruzkoak.

b) 2024an **Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea**. Laguntza ordaindutako matrikulen zati bat finantzatzea izango da.

**15.000 biztanle baino gutxiagoko udalek bakarrik** heldu ahalko diote kontzeptu horrengatik finantzatzeari, bai eta mankomunitateek eta kuadrillek ere, beren langile propioei dagokienez, betiere oinarri honen a) letran ezarritako laguntzen onuradunak izan ez badira.

Inola ere ez dira finantzatuko formazio-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen joan-etorri, mantenu eta egonaldien gastuak, ez eta haiek ordezkatzeko gastuak ere.

Entitate haiek prestakuntza-plan edo -programa bana aurkeztu ahal izango dute deialdi honetarako, beren mendeko langileak hartuko dituen. Plan edo programa horrek aukeran dauka entitate bakoitzaren mendeko organismo autonomoetako langileak ere kontuan hartzea.

Horietaz gainera, udalez gaineko entitateek ere haiek osatzen dituzten entitateetako batzuen edo guztien langileak hartzen dituzten plan edo programak aurkeztu ahal izango dituzte. Plan horiek aurkeztuz gero, beren mendeko entitate horiek ezingo dute beren kabuz planik edo programarik aurkeztu.